

Azkue jaunak irakurten dau urrengo "Sufijos vascos que equivalen a los de otras lenguas" deritxon lantxo bat. Pozik entzuna da.

Eta beste barik, araudizko otoitzaz amaitu da batzarra.

* * *

Bilbon, Euskaltzaindia'ren etxean, mila bederatzireun eta berrogeta laugarren urteko Epailaren ogetamaikan, Azkue jauna maipuru dala ta Urkijo ta Oleaga Euskaltzainak eta Krutwig Euskaltzain-urgazlea bertan dirala, betetan dau Euskaltzaindiak il oneri dagokon batzarra.

Araudizko otoitzaz emoten jako asiera.

Urrengo, Azkue jaunak, Schmidt jaunak lurbirako izkuntzak azterturik egindako liburu ospetsua gaitzat artuta, lan sakon bat irakurten dau.

Onetan daragoiola, Ertzain bi agertzen dira, Euskaltzaindia'ren zertzeladak jakin gurean. Egin dabezan itaunari egoki erantzunik, eskaturiko agerbideak emon jakoz.

Gaur arratzaldean, Bizkaiko Ekautaren "Junta de Cultura"-k gertuta, euskera gaizko itzaldi bat egiteko dan Caro Baroja jauna bere, bertan agertzen jaku, Euskaltzaindiari agur agitera. Pozik artu da bere iker-taldia.

Beste barik eta araudizko otoitzaz amaitzen da batzarra.

* * *

Donostia'n, Ekautaren Jauregian, 1944'gko, Orrila'ren 26'an, egiten dau Euskaltzaindia'k il oneri dagokon batzarra. Azkue, Urkijo, Inzagaray, Zamarripa, Etxaide ta Oleaga euskaltzain jaunak dagoz bertan, lenengoa maipuru dala.

Araudizko otoitzaz asten da batzarra.

Lenagoko batzarraren agiria irakurten da ta ao batez onesten da.

Urrengo adierazoten da Gaubeka jaunaren eskaria; berau da, Euskaltzaindia'ren aldirokoa irartearren zor jakona ordaindu dakiola. Onan ebazten da.

Gero Azkue jaunak irakurten dau "Cuestiones gramaticales ausentes casi todas del Tratado de Morfología Vasca" deritxon lan bat. Ta urrengo Urkijo jaunak adierzoten dau Castro Gisasola jauna "El enigma del vascence ante las lenguas indoeuropeas" deritxon liburu barria gertuten dagoala eta beronen zertzelada batzuk azaltzen dauz. Pozik entzun dira bata ta bestea.

Azkenez iztegia gertuten dabiltzan euskaltzainak azaltzen dabe zertan doan euren lantxo ori.

Eta beste barik araudizko otoitzaz amaitzen da batzarra.

* * *

Bilbao'n 1944'gko Iraila'ren 29'an, Euskaltzaindia'ren etxean, Azkue jauna maipuru dala ta Zamarripa ta Oleaga euskaltzainak bertan dirala, egiten da il oneri dagokon Euskaltzaindia'ren batzarra.

Araudizko otoitza esan da gero, lenaurreko batzarraren agiria irakurri da ta aobatez onetsi.

Urrengo Azkue jaunak A. Schmidt jaunaren "Las familias de lenguas y los círculos de lenguas en la tierra" deritxon liburua gaitzat artuta, lantxo bat dirakur.

Eta beste barik ta araudizko otoitzaz amaitzen da batzarra.